

NATUR ZIENTZIETAKO HIZTEGIA ARANTZADIK EMANA



linea arrotzak aplika, genuinoa baizik. Euskal marxismo nazional eta Euskal Iraultza Sozialista Nazionalaren gorputz teoriko orokorra formulatu behar da, ezker abertzalearen joeren batasunaz, alderdi berri dirigente bat lortzeko. **Euskal estioa**, marxismoa eta nazional dialektika izango dela dio, sozialista eta komunisten batasuneko alderdi abertzale sozialista dirigitean, euskal prozesu genuinoan. Gaur, euskal borroka klase borroka da. **Alderdi beraz, abangoardiako alderdi marxista nazionala izango da, (masa organismoak ere izango dituelarik era zabala-go batean), legala ere izango da.**

Genuinotasun idealismoak hankaz gora ezartzen du azterketa. Azken aldeko errealitatearen analisi desfasatua alde batera utzita, kooperatibismoaz eta interklasismoazko gaiak ere utzita, ideia zeharo idealistak ditu: sozialista eta komunisten batasunaren justifikazioa; sozialismo abertzalearen berezko karakter dirigen-tea; nazioaren konzeptzio esenzialista e.a. Itzelezko astakeraia baten argi agertzen da kasu konkretu batetan: Euskadin ezker abertzalea maioritario dela, erabat, espainiar ezker minoritario, barne-krisidun eta histerikoaren ondoan (23 orr.) Hauk idealismoaren gailurrak dira. Genuinotasuna da oinarria Gaurhuts baitan. Azterketa lar irrazionala dela uste dugu. Marxista ote den galdetzen dugu. Ez da ez zientifiko ez arrazionala, eta ezker abertzaleak, une honetan batez ere kontuz aritu behar du irrazionaltasunarekin.

Bukatzeko. Itxuraz dotorea, grafikoki ederra, pospoluen joku fotografikoak batez ere, eta edizio bera. Kontenido alde-tik, irrazionala, imaginatiboa eta sentimental da. Gaurhuts-en adieraziarekin ados dagoena, areago legoke entrega emozional joera batez analisi arrazional batez baino.

JOSEBA BASARTE

Natur Zientzietako Hiztegi hau euskararentzat da irabazi ikaragarria, Euskal Herri osoarentzat, eta ez Natur Zientzietako ikasle eta irakasleentzat bakarrik.

Euskararen aldetik -esku du, gero, Fernando Mendizabalek gauzotarako- ikasleentzat eta espezialistentzat izan daitekeenaz aparte, Natur Zientzietatik denok behar izaten dugunaz aparte orobat, Hiztegiak esperientzia guziz interesgarri dakazkigu, beste eremuetan ere arrunt balio dutenak: Agirrebaltzategiren hitzaurre mamitsu eta metodiko garbi batetan argitzen dira. Irudipen hutsetan ibili gabe, esperientzia baten gainean estudia genitzake orain problemaok. Sistimatikoki joan gintezke, kritikak, sujerentziak, eginez. Atzikiak aprobetxatzen, adibidez, pila bat ikas daiteke liburu honetan. Zientzietan beharrezko frasekera ere finkatu da: "Area, liseri-guruin bat da, urdailaren eta duodenoaren artean aurkitzen dena". Edo ta: "Biologian asoziazio izenaz izendatzen da: espezie berdineko nahiz desberdineko lagunen elkartzea edo taldekatzea...". Euskara gozoa eta fresko-freskoa, halare, beti.

Gauza nabarmena da, Natur Zientzietan daukagula oker-okerrerenik euskara. Hori eskolan ikasten bait da, ez etxean. Eta eskolak, Euskadin, espainol hitusak dira. Suarez Mnistroaren burlak haserratu egiten gaitu. Arrazoi gutiz. Baita Suarezek arrazoi duelako ere, euskaraz fisika nuklearra irakasterik ez dagoela, esaten duenean. Ez Suarezek nahi lukeen zentzuan, baina hori egia da. Ordea, egia horrek adierazten duen egia guztia, hauxe da: berak orain gidatzen duen Estaduak aspaldian holakoxe kondizioetan daukala euskara. Kasualitate handi batez, Suarezek eta, ohartu ez duten kasualitate batez, maisu espainolek ez dakite Natur Zientziak alemanez edo ingelesez irakasten, eta maisu alemanek eta ingelesek bai. Estaduak horrelaxe prestatzen bait ditu bere maisuak. Euskadin, ordea, ez. Lotsatu behar lukeena Suarez da, ez gu, baina errotu egiten da hura, eta lotsarazi egin nahi gintuzke gu. Horrela, bi aldiz burlatzen zaigu Estadu hori: lehenengo goseak edukiaz eta jaten ez emanez; eta, gero goseak gaudelako eta ahul gaudelako farre eginez.

Gainera eguneroko hizkuntzatik alden-duena, hizkera espezialena, "eskola hizkuntzarena", horixe da. Mintzaira hori da, gutien-gutien aurkitzen duzuna tabernan, lantokian, periodismoan, politika gaietan, nobeletan, kiroletan, eta egunaren buruan kristauak hitz egiten duen ehundik larogei eta hemeretzi eta piko-tan. Aplikazio eremu guztiz mugatua du bizitzan, hortakoz, alde hortatik. Zeinek aipatzen du, eskolatik kanpora, lamelin-brankiorik? Halere, guzti hori zein inpor-

tante dugun, gure mundu honek, zuzen ala zehar, Natur Zientzia horiexetatik de- penditzen duelako, ez dago esan beharrik. Horrexegatik, ordea, espezialistek berek, eta ia inoren laguntzarik gabe, eta hortaxe propio jarrita egin beharrezko lana izan dute. Saiakerak, periodismoak, eta abar, ez zeukaten hemen haiei laguntze- abar, ez zeukaten hemen haiei laguntze- rik. Eta horra: filosofoz eta teologoz eta soziologoz eta politikoz eta historigilez eta beteta gabiltzala, dirudi; baina kalean gutien nabarmen diren natur-zientifiko apalak izan ditugu, saiatu dira eta egin, egin dute. Lan egitea eta herri egitea horri esaten bait zaio. Beste dena kaka zaharra da. Berriketak.

Lezio bat eman digu, ederra, Arantzadiko biologari-geologari talde honek. Lotsatu ere egingo ginatke, eman diguten poza haundiegia ez balitz. Zentzua, lehia eta metodoa, erakutsi eta irakatsi dizkigute. Beharbada jarraituko gatazkie, nor bere sailean. Eta, beharbada, "kulturalista" beti burlatuen atzetik, politikoez ere ikasiko digute, horrelaxe lan egiten. Harri-garria lana. Harrogarria. Pozgarria.

Hau da referendua, referenduinik behar bazen!

Alabaina, holako obrarik ez zen posible izango, elkar lanik gabe; eta lan eta lan aritu izan ez balira aurreko urteotan Arantzadikoak berak, Elhuyarkoak, Uda-ko E. Unibertsitatea, Kintana, Etxebarria, Larrinaga, Peilen, X. Garmendia, itzultzaileak eta testugileak, eta nik dakit zenbait gehiago. Gorazarre horiei guziei. Hiztegi hauxe da horien gorazarre hoberena, nik uste. Guztion lanaren fruitu bat da. Hiztegiaren kalitatea ez da airean asmatu den obra batena, lan aski helduarena baino. Jende askoren eta prestaketa lan luzearen emaitza da. Erabateko eta guzizko batasunik ez baldin bada ere oraindik lortu, asko lortu da. Inportanteena baietz, esango nuke. Falta diren gauzatxoak, erraz burubida litezke: hitz hasieran r-rik onartu ala denak er-,ar- hasi; objektu ala objektu, etc.

Optimistenek berek nekez itxaro zezaketen lana daukagu Biologia-Geologia Hiztegian. Ikasleek nahiz irakasleek, tresna bikain batez gainera, hor dute meatze bat, Udako E. Unibertsitatean nahiz negukoan, nahi adina urte eta zilar bilatzeko.

Baina, oraintxe bertan, begientzat ere plazer bat den hiztegi hori egin izanak soil (ohi duen artista agertu da berriz ere Aduriz, argitalpenaren moldatzailea), euskara eta Euskal Herri osoa eta guztiok ohoratzen gaitu. Esker on eta ohore, herria hain zaldunki ohoratzen jakin digute-noi.

JOXE AZURMENDI